# GR 38 ARDOAREN ETA ARRAINAREN IBILBIDEA RUTA DEL VINO Y DEL PESCADO

Ardoaren eta arrainaren ibilbidea antzina mandazainek eta merkatariek Bizkaiko arrantza-portu nagusien eta Arabako Errioxaren artean egiten zuten bidea zen, produktu horien eta beste batzuen merkataritzarako.

*La ruta del vino y del pescado era la ruta que antiguamente recorrían arrieros y mercaderes entre los principales puertos pesqueros de Bizkaia y Rioja Alavesa, para el comercio de estos y otros productos.*




## GOMENDIOAK
## RECOMENDACIONES

Saia zaitez etapak norbaitekin egiten, eta esan nora zoazen eta noiz etorriko zaren.

*Procura realizar las etapas en compañía y deja aviso de dónde vas y cuándo vuelves.*

Eraman beti behar den beste hornigai (ura, janaria, jantziak, botikina, mugikorra…).

*Lleva siempre equipo suficiente (agua, alimentos, ropa, botiquín, móvil...).*

Ez piztu surik, horretarako diren lekuetan izan ezik, eta erretzailea bazara gorde zure zigarrokinak.

*No enciendas fuego, salvo en los lugares destinados a ello y si fumas llévate las colillas.*

Gomendagarria da mugikorraren bateria ondo kargatuta eramatea.

*Es aconsejable llevar la batería del móvil bien cargada.*

Ez irten seinaleztatutako bideetatik, errespetatu ingurunea eta gainerako ibiltariak.

*No te salgas de los caminos señalizados, respeta el entorno y a los demás senderistas.*

EUSKO JAURLARITZA · GOBIERNO VASCO

GR 38-ko etapa gogorrenetako bat da, Estibalizko santutegia eta Otxandioko erdigunea lotzen dituena, 37 kilometro eta gero Bizkaiko lurralde historikoaren atarira helduz. Gasteizko mendietako basoak atzean utzi eta Arabako lautadan sartuko gara, Ulibarri-ganboa urtegiaren paisaiaz gozatuz.

*Una de las etapas más duras del GR 38, que con sus 37 kilometros une el monasterio de Estibaliz con el núcleo de Otxandio, a las puertas del territorio histórico de Bizkaia. Dejamos atrás la zona boscosa de los montes de Vitoria-Gasteiz para adentrarnos en la llanada alavesa y recorrer algunos pueblos que la componen. El pantano de Ulibarri-ganboa marcará la nota.*

37 km · 610 m · 10h 30' · MIDE 1-2-2-5




- 1 — Ingurunean badago arriskurik / *El medio no está exento de riesgos*
- 2 — Bidezidorrak edo norabidea adierazten duten seinaleak / *Sendas o señalización que indica la continuidad*
- 2 — Ferra-bideetan egindako ibilaldia / *Marcha por caminos de herradura*
- 5 — 10 ordutik gorako benetako ibilaldia / *Más de 10 horas de marcha efectiva*

# Bidezatia / *Tramo*
## ESTIBALIZ > AMARITA

km 0 ······· **ESTIBALIZ.** Erlijio-multzoaren ondoan dagoen atsedengunetik Oreitiarantz abiatuko gara, geralekuaren parean trenbidea zeharkatuz. Herrigune txikian, zenbait jauregi blasoidunez gain, okulu bitxi bat duen XIII. mendeko eliza bat dago, non Santiagoko zaldun batek lantza batekin Compostelarako norabidea adierazten duen. Lursailen artean jarraituko dugu, N-104 errepidea gurutzatu eta Arbulura iristeko. Bertan, oinarrian harrizko ontzi handi bat duen iturria aurkituko dugu. Kondairaren arabera, "Arbuluko Gaztea" ospetsuak jateko erabiltzen zuen ontzia omen da.

km 4,4 ····· **ARBULU.** San Martin de Tours elizaren ondotik igaro ondoren, iparralderantz jarraituko dugu N-1 errepidea gaineko pasabidetik zeharkatzeko. Laborantza-lurrez eta erkameztiz osatutako zuhaizti batzuk eta gero, Uribarri Ganboako urtegira iritsiko gara, non ikuspegiak bikainak diren. Nahiko itxia den erkamezti batean sartu beharko gara gero Mendibil herrira iritsi eta errepidea gurutzatzeko. Handik, Zadorra ibaiaren ubidea jarraituko dugu, ibar-baso atsegin batetik, Amarita herrixkara hortik gutxira desbideratzeko.

*km 0* ······· ***ESTIBALIZ.*** *Salimos del conjunto religioso por el área recreativa en dirección a Oreitia, cruzando las vías de ferrocarril a la altura del apeadero. En el pequeño núcleo, además de varios palacios blasonados, encontramos una iglesia del siglo XIII con un curioso óculo en el que un caballero de Santiago indica con su lanza la dirección a Compostela. Seguimos por parcelarias entre cultivos para cruzar la N-104 y llegar a Arbulo, donde llamará nuestra atención una fuente cuya base está formada por una gran vasija de piedra que, según cuentan, era la utilizada para comer por el legendario forzudo "Gaztea de Arbulo".*

*km 4,4* ····· ***ARBULO.*** *Tras pasar junto a la iglesia de San Martín de Tours seguimos hacia el norte para franquear la N-1 por paso elevado y, cruzando entre cultivos y un bosquete de quejigos, alcanzamos las colas del embalse de Ullíbarri-Gamboa, sobre las que disfrutaremos de unas espléndidas vistas. Habrá que internarse en un denso quejigar para alcanzar el pueblo de Mendibil, donde cruzamos la carretera. Desde aquí, se sigue el curso del río Zadorra por un agradable soto para desviarnos a la cercana Amarita.*

**KMZ** **GPX**






# EZ GERATU EZAGUTU GABE!
## ¡NO TE LO PIERDAS!

Estibalizko tenplua, nagusiki erromanikoa eta lehen gotikoko elementuak dituena, Euskadiko Erdi Aroko arkitekturaren adibiderik onenetakotzat hartzen da. Barruan, Arabako zaindaria den Estibalizko birjinaren XII. mendeko irudi bat dago.

Gaur egungo tenplua XII. mendean eraiki zen, aurretik 984an existitzen zen monasterio batek okupatutako toki berean, San Millan de Cogollako artxiboetan jasotzen denez.

*El templo de Estíbaliz, de estilo predominantemente románico y con elementos del primer gótico, es considerado uno de los mejores ejemplos de la arquitectura medieval de Euskadi. En su interior alberga una imagen del siglo XII de la virgen de Estíbaliz, patrona de Alava.*

*El templo actual fue construido en el siglo XII, en el mismo lugar ocupado anteriormente por un monasterio que ya existía en el año 984, según se recoge en los archivos de San Millán de Cogolla.*





Uribarri Ganboako urtegia ingurumen- eta aisialdi-gune interesgarria da. RAMSAR eremu izendatua, Euskal Autonomia Erkidegoko barnealdeko hezegune garrantzitsuenetako bat da, bertan dagoen biodibertsitate handiagatik, arraskuan dauden edo oso ohikoak ez diren espezieak baititu. Urtegiko ertzetako batean Parke Ornitologikoa eta Mendixurko Behatokia daude, uretako hegazti ugari hartzen dituena.

*El embalse de Ullibarri Gamboa constituye un interesante espacio medioambiental y de ocio. Declarado zona RAMSAR, es uno de los humedales de interior más importantes del País Vasco, por la gran biodiversidad que alberga, con presencia de especies amenazadas o poco comunes. En una de las colas del embalse se encuentra el Parque Ornitológico y Observatorio de Mendixur, que acoge multitud de aves acuáticas.*



# TELEFONO INTERESGARRIAK
## TELÉFONOS DE INTERÉS

| | | |
|---|---|---|
| Arabako Erromanikoa: Estibalizko Santutegia eta Erromanikoaren Interpretazio Zentroa<br>*El románico en Álava: Santuario de Estíbaliz y Centro de Interpretación del Románico* | | 660 766 383 |
| Gorbeiako turismo bulegoak<br>*Oficinas de Turismo de Gorbeia* | Murgia<br>Orozko | 945 430 440<br>946 122 695 |
| Larrialdiak<br>*Emergencias* | | 112 SOS DEIAK |

# Bidezatia / *Tramo*
## AMARITA > OTXANDIO

km 16,3 **AMARITA.** Amaritatik Urbinako gurutzera doan bidezidor batetik jarraituko dugu, berriz ere urtegien ikuspegi ezin hobea aurkituz. Ondoren, Urbinarantz jaitsiko gara A-1 errepidearen gainean dagoen pasabidearen bila, eta Vasco-Navarro trenbidearen ibilbideari jarraituko diogu Legutioko geltoki zaharreraino. Hiribildura iristeko 4 kilometro egin beharko dira oraindik Larrabeako golf zelaiaren albotik.

km 27,2 **LEGUTIO.** Erdi Aroko harresiaren azken zatia den Kristoren arkutik irtengo gara hiribildu zaharretik, ondoren parke bihurtutako hilerri zaharraren ondotik pasatzeko. Hurrengo zatian GR 25ekin bat egingo dugu batzuetan Albinako urtegi ezkutua bidean. Ezkerreko ertzetik inguratuko dugu hau, eskaintzen digun paisaia politaz gozatuz. Aramaiora doan errepidea gurutzatu ondoren, Miruegigan mendirantz abiatzen den bidezidor bati segituko diogu. Ia tontorreraino igo ondoren, gailurra ezkerretara utzi, eta Otxandiorantz jaitsiko gara, ehun urte baino gehiagoko pago lepatuak miresten ditugun bitartean.

km 37 **OTXANDIO.**

km 16,3 ***AMARITA** Desde Amarita seguimos una senda que nos conduce a la Cruz de Urbina, que ofrece de nuevo una inmejorable vista sobre los embalses. Descendemos después hacia Urbina buscando el paso habilitado sobre la A-1 y seguimos el trazado del antiguo Ferrocarril Vasco-Navarro hasta la antigua estación de Legutio. Para alcanzar la villa todavía habrá que recorrer 4 kilómetros bordeando el campo de golf de Larrabea.*

km 27,2 ***LEGUTIO.** Salimos de la vieja villa por el Arco de Cristo, último retazo de la muralla medieval y, ya fuera, pasamos junto al antiguo cementerio, reconvertido en parque. Junto a éste, coincidiremos momentáneamente con el GR 25. Nos encaminamos hacia el recóndito pantano de Albina para rodearlo bordeando por su orilla izquierda disfrutando del bonito paisaje junto a sus aguas. Tras cruzar la carretera que conduce a Aramaio, un sendero parte hacia el monte Miruegigan. Tras ascender casi hasta la cima, dejándola a nuestra izquierda, descendemos hacia Otxandio mientras admiramos los centenarias hayas trasmochas que salen a nuestro paso.*

km 37 ***OTXANDIO.***

# KONTUAN HARTU BEHARREKOAK
## A TENER EN CUENTA

• Etapa honetan, GR 38a GR 25arekin (Arabako Lautadako Itzulia) gurutzatu eta, zati batean, GR 282rekin (Artzaintzako Naturbidea) bat egiten du. Arreta berezia jarri bidezidor hauen bidegurutzeetan, marka gorriak eta zuriak beste norabide batean ez jarraitzeko.

*• En esta etapa el GR 38 se cruza con el GR 25 Vuelta a la Llanada Alavesa y coincide en un tramo con el GR 282 Camino Natural del Pastoreo. Presta especial atención en las bifurcaciones con estos senderos para no seguir las marcas rojas y blancas en otra dirección.*

• GR 38ko etaparik luzeena dugu hau, ia 40 km-koa. Hain ibilaldi luzeari aurre egiteko gai ikusten ez direnentzat, gaur egun bideragarria da ibilaldia bitan zatitzea: Amarita edo Legutiora arte lehen etapa bat eginez, eta horietako batetik Otxandiora arte beste bat.

*• Nos encontramos ante la etapa más larga del GR 38, de casi 40 km. Para aquellas personas que no se vean con fuerzas para afrontar una caminata tan larga, hoy en día es viable partirla en dos, haciendo una primera jornada hasta Amarita o Legutio y otra desde una de éstas hasta Otxandio.*

2021: Covid 19ren pandemian gaudenez bitartean, eutsi eskuen higieneari eta distantzia sozialari, eta jarraitu agintariek mugikortasunari edo maskaren erabilerari buruz emandako aginduei. Horrez gain, komeni da aldez aurretik egiaztatzea ostatuen eta beste zerbitzu batzuen irekitzeko ordutegiak eta egutegiak.

*2021: Mientras nos encontremos en pandemia de Covid 19, extrema la higiene de manos y distancia social, y sigue las indicaciones de las autoridades referentes a la movilidad o el uso de mascarillas. Además, es recomendable comprobar previamente los horarios y calendarios de apertura tanto de alojamientos como de otros servicios.*

turismoa.euskadi.eus/eu/
turismo.euskadi.eus/es/

